

## KAPITALISMOAREN MOZORROA

Irati Goikoetxea, 17 urte

*Beasain*

1. Maigaz eta lorez betea  
GLOBALIZAZIO hitza,  
bere alboan bildu nahi luke  
lurtar ororen bizitza,  
gai hau dela ta aspaldi honetan  
nahasi samar gabiltza,  
argitasunaren hitsa,  
gutxiengoaren ditxa, (BIS)  
kapitalismo sutsuak lasai  
darabil mozorro gisa,  
ta nik egia erakusteko  
eskaintzen dizuet giltza. (BIS)
2. Lurralde baten notasunean  
gabeziaren islada,  
hainbat hizkuntzen etorkizunak  
sorrarazten dit ikara,  
egunik egun ingelesa denon  
errege bihurtua da,  
txikientzako traba,  
etsipenezko taupada (bis)  
urrutira jo gabe hor dugu  
adibidetzat euskara,  
geure eskuez geure burua  
lurperatzen ari gara. (bis)

3. Hedabideen jarrerarekin  
gutziz suminduta nago,  
nahiz telebista ta irratian  
erreparatu luzaro,  
informazio objektiborik  
ezin dezaket itxaro,  
ohiko mugaz haratago,  
iruzarraren esklabo, (bis)  
aitorpen xamur oro jadanik  
egiten zaigu arraro,  
egia gezur latzen artean  
ezkutatuta baitago. (bis)
4. Marken munduak indarra jaso  
ohi du publizitatetik,  
Coca-Colaren zaporemina  
zoko denetan jadanik,  
Mac Donalds-eko hanburgesari  
ezin ba esan ezetzik,  
Michel Jordan-en eskutik  
Nike zapatilekin pozik, (bis)  
baina eredu bakar horretan  
bada ezberdintasunik,  
munduko zati handi bat bizi  
baita gosez ta oinutsik. (bis)
5. Non gelditu da taba jokua?  
Non zaku karreren garra?  
Pokemon eta Play Station-ek  
hartua dute indarra,  
talde jolasa bilakatu da

bakardadezko liskarra,  
globaltasunaren harra,  
malko gazizko negarra, (bis)  
mundu honetxek eskainia ez  
ote da garapen txarra,  
ez alda pena jolas berari  
jolasten ahaztu beharra? (bis)

6. Sukarrez triste ta ondoezik  
daukagu Lurra planeta,  
Amazonasen txikizioa,  
CO<sub>2</sub>-ren isurketa,  
hor berotegi efektua ta  
baita klima aldaketa,  
agortzen ari da beta,  
jaunak, ez da berriketa (bis)  
azkar ta txukun egin beharko  
globalkiro konponketa,  
gaitza munduko txoko denetan  
zabalduta dago eta. (bis)

7. Ekonomia neoliberal  
zorrotz batean barrena,  
gutxi batzuen asean gose  
bizi da jende gehiena,  
Munduko Banku nagusienek  
zurruputzen dute dena,  
ezinaren hasperena,  
galtzear itxaropena, (bis)  
desorekaren eragilea  
hori da zehazki dena,

ustez gorputza indartsu duen  
bihotz gabeko sistema. (bis)

8. Aniztasuna alboratzea

Estatu Batuen grina,  
erraldoi handi, zapaltzaileak  
gugan duen eragina!  
Guztia ongi menperatzeko  
botere militar fina,  
gainontzekoen ezina,  
irauteko ahalegina, (bis)  
eta lehoien oihan honetan  
dena ez denez berdina  
gutxiren ditzak eragiten du  
gehiengoaren samina. (bis)

9. G-8koen bilerek dute

zurikerian ardatza,  
hori dela-ta protesta askok  
utzia dute lorratza,  
askatasuna ezberdintasun  
lazgarri batean datza,  
bake bidean urratsa,  
elkartasunezko hatsa, (bis)  
Seattle, Genova, Praga, Salzburgo...  
bizirik da esperantza,  
denon artean alda dezagun  
gure pausoen norantza. (bis)